



AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILAREN 2018-2020 ALDIKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epean, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzaketa-iturria, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete behar direlarik.

Lege hori garatzeko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikulua, berriz, diru-laguntzen plan estrategikoen edukia ezartzen du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/2015 zenbakiko zirkularrak, diru-laguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoak, zenbait neurri biltzen ditu plan horiek egin eta onartzeari begira.

Xedapen horiek betetze aldera, Plan hau sailaren eta sailari atxikitako erakundeen politikak planifikatzeko tresna da. Helburua da Euskadi sozialki kohesionatutako lurralde gisa, lurralde orekatu eta jasangarri gisa egituratzea, ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa eta etxebizitza duinerako eskubidea bermatuko duen gizarte-etxebizitzako politika garatzea; bada, helburu horiek bat datoz, ezin hobeto, XI. legealdirako (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan azaldutako konpromisoekin.

Plan hau egiteko, honako hauek hartu dira abiapuntu gisa: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8 artikulua araberako egindako 2016ko aurrekontu-ekitaldiko diru-laguntza programen ebaluazioa, eta aurrekontu-helburuak betetzeari buruzko ebaluazioa. Aldi berean, 2013-2016 Etxebizitzaren Gida Plana betetzeari buruzko ebaluazioaren berri eman zitzaion Gobernu Kontseiluari, 2017ko azaroaren 28ko bileran, eta Eusko Legebiltzarrari igorri zitzaion; horri esker etxebizitzaren arloko diru-laguntzen politiken plangintza berria ezartzeko testuingurua jarri da.

Era berean, aztertu egin dira lehenago azaldu diren interes publikoak, Gobernu Programan bilduta dauden eta lortu nahi diren horiek, eta Planaren indarraldian horretarako erabilgarri dauden baliabideen aurreikuspenekin erkatu dira. Era horretan bermatzen da eraginkortasun-maila eta efizientzia-maila areagotzea, baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea ere.



Ohartarazi behar da, dena den, planak izaera programatikoa duela 2016-2020 aldiko Gobernu Programaren jardunen esparru orokorraren barruan, eta hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna diru-laguntza lineak praktikan jartzeak baldintzatzen du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, besteak beste.

Azaldutakoa kontuan izanik, Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan esleitutako eskumenak egikarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Eranskin gisa ageri den "Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren 2018-2020 epealdiko diru-laguntzen plan estrategikoa" onartzea.

Bigarrena.- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta hari atxikitako erakundeek ematen dituzten diru-laguntzak plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkie, eta egungo aurrekontu-bitartekoek baldintzatuko dute betiere.

Planean aurreikusten ez diren diru-laguntza jarduketa guztiak plan horren ardatz eta helburuetako batean kokatu beharko dira, eta espedientean justifikatu beharko da plan horretan sartu ez izana. Aurreikusitako diru-laguntza jarduketa berria ez bada kokatzen ardatz eta helburuetako batean, aldeztu aurretik Plan hau moldatu beharko da nahitaez.

Hirugarrena.- Urte bakoitzeko lehen seihilekoaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8 artikulua araberaren egiten den diru-laguntza programaren ebaluazioaren barruan, planaren betetze-maila ebaluatuko da. Egindako balorazioa, bidezkoa izanez gero, oinarri gisa erabili beharko da diru-laguntzen plan estrategikoa hain egokitzeko edo aldatzeko edo egindako aurrekontu-aurreikuspenetan birdoikuntzak egiteko, birdoikuntza horiek esanguratsuak direnean.

Ignacio María Arriola Lopez
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA
Elektronikoki sinatuta

ERANSKINA

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA - 2018-2020 ALDIA

1.- Planaren justifikazioa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epean, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzaketa-iturria, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete behar direlarik.

Manu hori betetzeko sailek izan beharreko jarduna bideratzeko, 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu du Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, diru-laguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zenbait neurri biltzen dituena plan horiek egin eta onartzeari begira.

Diru-laguntzen lege hori garatzeko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikulua, berriz, diru-laguntzen plan estrategikoen edukia ezartzen du.

Honako hauek dira planaren aurrekariak: 2015eko amaiera aldean, urtebeteko epea gogoan hartuta, “2016ko Ingurumen eta Lurralde Politikako sailaren diru-laguntzen Plan Estrategikoa” eta “Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2016ko diru-laguntzen Plan Estrategikoa” onartu ziren. Legealdi honen hasieran, dokumentu programatiko horiek, orain Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumenen mendean, 2017an luzapena izan zuten, Sailaren 2016ko diru-laguntzen plan estrategikoa 2017rako luzatzen duen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aginduaren bitartez.

Orain, Sailak epealdi berri honetan aintzat hartu dituen helburuak eta erronkak identifikatu eta bere gain hartu dituela, Gobernu Programan ezarritakoen esparruan, Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzen da legealdia amaitu arte geratzen diren 3 urteetarako.

2.- Aplikazio-eremua

Planean Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta hari atxikitako erakundearen diru-laguntza jardura guztia biltzen da; hona hemen erakundeok: Uraren Euskal Agentzia-URA zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, eta IHOBE, VISESA eta

ALOKABIDE erakunde publikoak. Dena den, erakunde publiko horietako batzuk ez dira ezerein diru-laguntza jardun zehatzen arduradun gisa identifikatuta ageri, ez baitute diru-laguntzarik ematen aginduta daukaten zereginaren jardunean.

Planaren denbora-jokalekua X. Legealdia amaitzeko geratzen diren 3 aurrekontu-ekitaldiak dira. Denbora-jokaleku hori aukeratu da, ez Sailaren helburuak osorik betetzea lortzeko egokiena dela uste izategatik, baizik eta gobernu-sistema demokratikoaren mekanikak berak lau urte irauten duten legealdiak ezartzen dituelako.

Dena den, denbora-jokaleku hori bat dator Sailaren politikako dokumentu programatiko nagusien, hau da, EAEko 2020 Ingurumen Esparru Programaren eta 2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planaren denbora-jokalekuekin. Era berean, bat dator Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2020 Esparru Programaren denbora-jokalekuekin; hain zuzen ere, azken programa horren 6. ardatzean txertatzen dira Etxebizitzak Birgaitzeko Renove programak.

3.- Planaren edukia

Plana hiru ardatz estrategikotan egituratzen da. Ardatz horiek Sailaren dokumentu programatiko sektorialetan definitutako helburu eta ardatz estrategikoetatik nahiz Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren konpromisoetatik, XI. legealdirako (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan identifikatuta dauden horietatik ateratzen dira.

Ondoren, identifikatu egiten ditu, laburpen gisa, diru-laguntza programa guztien egikaritzarako aurreikusitako kostuen datu globalak, programa horiek sailak bere egituratan dituen antolakunde-unitateekin lotuta.

Azkenik, planean, diru-laguntza programetarako, fitxa bat jasotzen da. Fitxa horretan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak proposatutako ereduari jarraikiz, beste eduki batzuk txertatu dira Diru-laguntzen Legearen Erregelamenduekin bat etorritz. Hala, programa horietarako, honako alderdi hauek identifikatzen dira: helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak, eraginpean dauden eskumen-esparruak, zerikusia duten arloko planak, xede diren arloak, diru-laguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak eta egon litezkeen beste finantzaketa-iturri batzuk.

Fitxa horiek prestatzean, halaber, kontuan hartu da bete behar dela Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2017ko Programaren dokumentua, arlo horri dagokionez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren Gobernantza ardatzeko G11

neurriarekin bat datorrena. Horren haritik, legez eskatzen denaz haragoko berdintasun-klausulak jasotzen dituzten diru-laguntza programek euren fitxetan berdintasunerako plana aipatu dute, ekimenak zein arlotako planekin duen zerikusia eta plan horien zerrendan.

4.- Ardatz estrategikoen eta helburu estrategikoen identifikazioa

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa bat dator Sailaren arloko dokumentu programatikoetan, funtsean Ingurumen Esparru Programan, 2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planean, Euskadiko Hiri Agenda-Bultzatu 2050ean (biak ere prestatzen ari dira) eta Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2017-2020 epealdiko Esparru Programan azaltzen diren konpromisoekin; hain zuzen ere, azken programa horren 6. ardatzean txertatzen dira Etxebizitzak Birgaitzeko Renove programak; horiez gain, bat dator ere XI. legealdirako (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan jasotako konpromisoekin, Sailaren jarduera-esparruarekin zerikusia duten konpromisoekin, alegia. Premisa horiekin, Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa honako ardatz estrategiko hauetan egituratu da:

- Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa
- Sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria den lurraldea
- Etxebizitza duin baterako eskubidea bermatuko duen gizarte-etxebizitzako politika

4.1.- Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa

Ingurumen Esparru Programak jasotzen duenez, ingurumena pertsonak garatzeko benetako aukera-iturria da, bai eta enpresentzako eta ekintzaileentzako aberastasuna sortzeko eta gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa sortzeko aukera berrien iturria ere. Beraz, ingurumenaren babesak eragina du XI. legealdirako (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan jasotako lehen bi oinarrietan: “Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna” eta “Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak” dira oinarri horiek.

Argi dago oinarri horiekin bat datozela Ingurumen Esparru Programaren helburuak. Alde batetik, ingurumena indartsu aprobeztatzen da enplegua eta jarduera ekonomikoa suspertzeko aukerak eskaintzen dituen benetako iturri gisa, bai-eta enpresa berritzaileen, pertsona ekintzaileen eta enplegu berdearen garrantzi handiko harrobi gisa ere. Baliabideak eta lehengaiak aurrezteko lehiakortasun iturria da enpresentzat, epe ertain eta luzera. Halaber, herrialdeko espezializazio

adimentsuarentzat, ingurumena zeharkako aukerak eskaintzen dituen nitxo gisa agertu da.

Alde batetik, ingurumen-politika arduratsu batek modu erabakigarrian laguntzen dio giza garapenari. Ingurumena erabakigarria da pertsonen osasunari dagokionez, hura babestean ekosistema naturalek ematen dituzten zerbitzuak (lehengaiak, baliabide energetiko eta hidrikoak, paisaia, kultur ondarea, etab.) gerizatzen dira, eta lurralde-kohesio eta -lehiarako faktorea da, baita etorkizuna ikusten dakiten herritarrentzat prestakuntza integraleko eta erantzukizuneko faktorea ere.

Ingurumen Esparru Programak jasotzen duenez, halaber, Ingurumen kontzeptuak giza bizitza baldintzatzen duten faktore guztiak hartzen ditu barnean; ez naturalak bakarrik, baita sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ere. Gaur egun ingurumenari buruz hitz egitea gure bizi-jokalekuari buruz hitz egitea da, gure jarduerak garatzen ditugun testuinguruari buruz, baldintzatzen gaituenari eta, aldi berean, guk baldintzatzen dugunari buruz.

Saila jabetzen da ingurumen-politikak, zeharkakoa denez, erantzunkidetasunean oinarrituta egon behar duela. Horretarako, administrazio guztien esku-hartze koordinatua ez ezik, agente sozialen, agente ekonomikoen, zientzia- eta teknologia-alorreko agenteen eta batez ere, herritarren parte-hartzea ere beharrezkoa da.

Egoera halakoa izanda, esparru horretan Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari esleitzen zaizkion konpromisoak, XI. legealdirako Euskadi 2020 Gobernu Programan definituta dauden konpromisoan barruan, honako hauek izango lirateke:

41. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra sustatzea
42. Ekonomia zirkularrari laguntzea
43. Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Natura Zaintzeari buruzko Legea
44. Enplegu berdea
45. Ingurumen-aldagaia politika publikoetan txertatzea
46. Ingurune naturalaren kalitatea hobetzea

Konpromiso horiek kontuan hartuta, sailaren diru-laguntza arloko politikak ardatz horren barruan hartu behar dituen helburu estrategiko hauek identifikatzen dira:

1. Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea
2. Ingurumen osasungarria bermatzea-Ingurumen kalitatea
3. Ingurumen integrazioa
4. Lurraldearen jasangarritasuna
5. Gure natura-ondarea babestea

1.- Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea

Helburu hori lortzeko lagungarriak dira “Ekonomia zirkularreko frogaketako proiektuetarako” laguntzak, 2020ko Ingurumen Esparru Programako “Fabrikazio berdea” ildoko helburuetan eta EAEko 2020rako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean nahiz espezializazio adimentsuko RIS 3 eskualde-estrategian – zehazki EAEko Zientzia eta Teknologia 2020 Planeko Fabrikazio aurreratuko lehentasunezko eremuan– ekarpen erabakigarria egingo duten proiektuak egin daitezela sustatzeko. Eta horiez gain Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko erakundeentzako Ekodiseinuko Proiektuak 2017 garatzeko laguntzak, produktuen eta zerbitzuen ingurumen-berrikuntza sustatzeko.

Helburu hori lortzeko lagungarriak dira, halaber, ingurumena hobetzeko enpresentzako inbertsioak, zehazki teknologia garbiagoak ezartzeko berariazko proiektuak, ingurumen-ziurtagiriak (Ekoetiketa eta EMAS erregistroa) ezartzeko proiektuak eta karbono-aztarna kalkulatzekoak.

Halaber, baliabideetan efizientea den karbono-kontsumo baxuko ekonomia sustatzeko ikerketa proiektuak, zabalkunde ekimenak eta ekintzak gauzatzeko lankidetzak-hitzarmenak egiteko asmoa dago.

2.- Ingurumen osasungarria bermatzea-Ingurumen kalitatea

Helburu hori lortzeko lagungarriak dira ingurumenari eragiten dioten jarduerak zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko egiten diren jarduerak. Gainera, aplikatu beharreko araudi berriari nahiz araudi hori betetzeko teknika berritzaileagoek eskain ditzaketen aukerei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duten esparruetan modu aktiboan parte hartzen du sailak. Jarrera hori hartzea mesedegarria da eztabaida sor dadin negozio-aukera berriei eta produktu-joera berriei buruz.

Horregatik uste da beharrezkoa dela elkarlanean aritzea ikerketa-jardueretan, teknologia-jardueretan, gizarte eragileetan eta jarduera ekonomikoko sektoreetan, eskuragarri dauden teknikarik onenak definitu, garatu eta aplikatzeko edo ingurumenari on egin ahal dion beste edozein jarduera egiteko. Horretarako, besteak beste, berrikuntza dakarten ingurumen arloko inbertsioak egiteko diru-laguntzak erabiliko dira, bereziki ekonomia zirkularraren eremuan.

Horren haritik, ingurumenean inbertsioak egiteko enpresentzako diru-laguntzen programak argi eta garbi helburu du sektore pribatuak ingurumen-hobekuntzak egin

ditzala, Sailaren helburu estrategikoak lortzen laguntzeko, eta zehazki, industria-jardueraren ondoriozko ingurumen-eraginak murriztea.

Halaber, ingurumen aldetik hondatuta dauden zonak lehengoratzeko lankidetzahitzarmenak egiteko asmoa dago. Baita ekonomia zirkularra sustatu eta bultzatzen dituzten proiektuak, zabalkunde ekimenak eta jarduerak egiten dituzten entitate eta organismoekin ere.

Atal honetan, gainera, Uraren Euskal Agentziak uraren zerbitzuen erakunde kudeatzaileekin ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko obrak gauzatzeko sinatzen dituen hitzarmenak sartzen dira.

3.- Ingurumen-integrazioa

Ingurumen-integrazioak hizpide du batik bat gure gizartearen garapenari ekitean ingurumen-dimentsioa alderdi ekonomikoen “balio” plano berean jartzeko premia; beraz, politika publikoak eta, bereziki, politika sektorialak diseinatzean eta abian jartzean agerian jartzen dira ingurumen-gaiak. Horrek Eusko Jaurlaritzako sail guztien, toki-administrazioen, Foru Aldundien eta gizarte osoaren ahalegina eskatzen du askotariko beharrak orekatzeko ingurumenaren babesaren eta garapen ekonomiko jasangarriaren mesedetan.

Ingurumenean eragina duten politika publikoen koordinazioa gehitzeko, sailen artean zein erakundeen artean, sektore pribatuen integrazioa eta herritarren parte-hartzea bultzatuz, zenbait diru-laguntza lerro kudeatzen dira ingurumen-hobekuntzako jardueretarako, ikastetxeentzat eta boluntariorientatutarako.

4.- Lurraldearen jasangarritasuna

Helburu hori betetzera bideratzen dira ingurumen-jasangarritasuna udal politiketako ardatz garrantzitsu gisa txertatzea xede duten jarduerak, betiere herritarren bizikaltatea hobetzeko xedearekin. Tokian tokiko jasangarritasuna bultzatzen duen lurralde-oreka bultzatu behar da, ondare naturala babestuz eta leheneratuz, negozio- eta enplegu-aukerak aintzat hartuz, hiri- eta industria-ehunen leheneratzearen eta mugikortasun jasangarriaren eskutik hirietako bizitza hobetzea bultzatzen duen lurralde-politika sustatuz, eta herritarrak osasunarentzat kaltegarriak diren ingurumen-arriskuetatik babestuz.

Helburu horren barruan, Sailaren diru-laguntza arloko politikaren xedea da toki erakundeek ekintzak sustatzea, ekintza horiek garapen jasangarria sustatzen badute, bai eta proiektu berritzaileak eta frogaketa-proiektuak sustatzea, “Euskal

Adierazpenarekin”, hau da, hiri eta herri jasangarrientzako bide-orriarekin bat egiten duten ekintza eraldatzaileak sustatzen badituzte.

5. - Gure natura-ondarea babestea

Helburu hori betetzera bideratzen dira, besteak beste, ekosistemak babesteko eta lehengoratzeko ekimenak, naturaren ezagutza eta kultura sustatzea, eta lurraldearen eta natura ondarearen kudeaketako efikazia eta eraginkortasuna. Ekimen horien barruan, sailaren diru-laguntzetarako politika klima-aldaketaren eremuko proiektu espezifikoaren garapenera bideratuta dago, natura-ondarea zaintzeko jardunen finantzaketara, eta eremu horretan jakintza sortzeko proiektuetarako.

Helburu honekin ere bat egiten du Urdaibaiko EKZParen baitan baso-sartzea aldatzearengatik konpentsazioak ordaintzeko ezarri nahi den diru-laguntza programa berriak.

4.2.- Sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria den lurraldea

XI. legealdirako (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan, Hazkunde Jasangarriari buruzko ardatz estrategikoan, bide-erakusleetako bat lurralde sozial, orekatu eta jasangarria lortzea da. Euskadi lurralde orekatu eta jasangarria izan dadin nahi dugu, ingurune degradatu gutxiago izango dituen, berroneratzearen eta bizi-kalitatearen alde egingo duena eta pertsonak nahiz euren egoerak, uneoro, kontuan izango dituen.

Hala, sailak esparru horretan bultzatzen duen politikaren funtsezko helburua etorkizuneko belaunaldiei lurralde atsegina, jasangarriagoa eta garapenerako potentzial handiagoa duena uztea da. Hori lortzeko lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarketa bultzatzen ari da, populazio-dentsitate handiagoak saritu dituzten, erabileren konbinazioa eta lurzoruen berrerabilpena indartu dituzten eta hondatutako eremuen edo eremu zaurgarrien lehengoratzeko lehenetsi dezaten, eta ekosistemen galera moteldu dezaten, hiri berroneratze orokorraren ikuspegitik.

Xede horrekin, esku-hartze plan integratu bat garatuko da. Plan horrek, proiektu pilotu gisa, esparru horietan esku-hartzeko metodologian aurrera egiteko bidea emango du.

Egoera halakoa izanda, esparru horretan Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari esleitzen zaizkion konpromisoak, XI. legealdirako Euskadi 2020 Gobernu Programan definituta dauden konpromisoan barruan, honako hauek izango lirateke:

47. Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta -estrategia
48. Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea
49. Pasaiako badia berroneratzea

Konpromiso horiek kontuan hartuta, sailaren diru-laguntza arloko politikak ardatz horren barruan hartu behar dituen helburu estrategiko hauek identifikatzen dira:

1. Hirigintza eta hiriaren leheneratzea
2. Paisaiari balioa ematea
3. Lurraldeko informazio geografikoa

1.- Hirigintza eta hiri-berroneratzea

Alde behartsuetan –industria zonetan zein bizitegi zonetan– esku hartzeko politikaren barruan, helburu hori lortzeko hainbat motatako laguntzak planifikatzen dira:

- Gizarte- eta hirigintza-azterlanetarako eta Birgaitze Integratuko Eremu eta Eremu Narriatu izendatutako esparruak berriro urbanizatzeko obretarako laguntzak (normalean Etxebizitzak Birgaitzeko Renove programan aurreikusi dira).
- Esku-hartze premia berezia duten eta auzo kalteberen inbentarioan kalteberatasun handia edo oso handia duten zonetan dauden eremuetan esku hartzeko laguntzak. Jarduketa horiek, esperientzia pilotu gisa hainbat udalerritan egingo diren horiek, hiri-berroneratze orokorraren ikuspegitik planifikatuko dira (kasu bakoitzean parte hartu behar dutela uste den eragile publiko edo pribatu guztiek parte har dezatela bultzatuko da) eta laguntzak aurreikusiko dira ez soilik eraikinen (energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzea) eta/edo hiri-eremuaren baldintza fisikoen hobekuntzarako pizgarria eta bultzada emateko, baizik eta gizarte gaiak (prestakuntza, mendekotasuna, ekintzailtza..) eta ingurumen-gaiak (azpiegitura berdeak eta naturan oinarritutako soluzioak hiri-eremuan txertatzea) ere hobetzeko. Laborategi-auzoan esku hartzeko proiektu pilotu gisa bultzatuko dira, aurretiaz ekimenak bultzatu dituzten udalerrietan, udalerrri horiek egikaritzeko ahalmen eta konpromisoa badute, eta eragile publikoen eta pribatuen parte-hartzea bilatuko da.
- Hiri-berroneratzeko helburu horretan sartzen da, halaber, Sestaoko Udalari emandako laguntza, irisgarritasuna hobetze aldera La Iberiako arrapala mekanikoak ordezteko.
- Unibertsitateetako (autonomia erkidegokoak, estatukoak zein nazioartekoak), ikerketa-zentroetako eta/edo zentro teknologikoetako eragileek, sektore publikoko edo pribatuko sozietateek zein 2018-2020

ZTBPre barruko "Hiri-habitata" pilotaje-taldean parte har dezaketen askotariko eragileek bultzatutako I+G+b proiektuak garatzeko laguntza-lerroetako laguntzak.

- "Deusto Cities LAB" katedra garatzeko diru-laguntzak, gobernantza-ereduen eta lidergo-estiloen inguruko berrikuntzarako, helburua hiriak eraldatzea edo hiri-berroneratzeko eragiketen mendean dauden esparruetako esku-hartzeak egitea dela.

Bestalde, saila industria-aurriak eraisteko laguntzak berreskuratzeko aukera aztertzen ari da. Egitekotan, helburu honekin bat egingo lukete, horri esker gutxi erabilia zeuden leku eta espazioak lehengorutzen baitira, egoera arriskutsuan dauden eraikinak ezabatuta.

Hiri-garapen jasangarria sustatuko duen lurralde-oreka lortzeko lan zorrotza egitea da helburua; alde horretatik, sailaren ekimenez bultzatutako ekintza eta esku-hartzeak bultzatzen diren aldi berean, balioa ematen zaie negozioarako eta enplegua sortzeko aukerei, auzoak berroneratzen eta hiri-bizimodua lehengorutzen lan egiten da, hiri- eta industria-bilbeen berroneratzea eta mugikortasun jasangarri sustatuko dituen lurralde-politika baten bitartez. Ekintza horietan bidea emango da naturan, ekosistemetan eta azpiegitura berdeetan oinarritutako soluzioak integratzeko, bidezkoa izanez gero.

Atal honetan sartzen da finantza-tresna berrien garapena, eta horrekin batera, bidezkoa izanez gero, Europako Erakundeetako funtsen bidez ,ESIF -European Structural and Investment Funds- edo EFSI -European Fund for Strategic Investments funtsak, edo EIBren bidez eman ditzaketen baliabideak integratzea.

Helburu horren barruan sartzen dira Hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko laguntzak.

2. Paisaiari balioa ematea

Bestalde, paisaiari balioa emateko helburuaren barruan, diru-laguntza politika Euskadiko paisaiak lehengoratzeko eta babesteko bultzadara bideratzen da, baita paisaia bereziak ikertzera, zabaltzera eta haiei balioa ematera ere, barnean direla "Lurraldearen, Paisaiaren eta Ondarearen Unesco Katedra" ko diru-laguntzak.

3. Lurraldeko informazio geografikoa

Helburu horren barruan sartzen da “Udalen Informazio Geografikoa” programa, helburua udal informazio geografikoa ekoiztea eta informazioaren kalitatea hobetzea eta udalaren kudeaketan informazio horren erabilera eta ustiapena sustatzea dela.

Programa horren barruan sartzen da EAEko udalei udal informazio geografikoa lortu eta kalitatea hobetzeko diru-laguntzen lerroa, udal datuak geoatari batera migratzeko kanalak eratzeko, eta udalek gobernuaren webguneak ematen dituen datu geografikoak erabiltzeko aukera izan dezaten.

4.3.- Etxebizitza duin baterako eskubidea bermatuko duen gizarte-etxebizitzako politika.

XI. legealdirako (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programan, Integraziorako eta berdintasunerako agenda sozialaren ardatz estrategikoaren barruan, bide-erakusleetako bat etxebizitza bat eskuratu ezin duten pertsonak etxebizitza duin bat lortzea errazten duen etxebizitza-politika bat sustatzea da, etxebizitzarako eskubide subjektiboari erantzunez eta alokairuko etxebizitzak eskuratzea lehenetsiz.

Printzipio horren ildo beretik, dokumentuak XI. legealdirako Euskadi 2020 Gobernu Programan Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari esleitutako hiru konpromiso zehatz jasotzen ditu. Honako hauek izango lirateke:

142. Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatzea
143. Alokairu-araubidea lehenestea, baita gazteen emantzipazioa ere
144. Eraikita dagoen parkea birgaitzen laguntzea

Gobernu Programako planteamendu horrekin bat eginez, 2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planaren egitekoa da alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren hazkundera bultzatzea; parke publiko hori gai izango da etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko eta eragozpen handienak dauzkaten taldeen beharrianak artatzeko; horretarako, ahal dela, gizarte-integrazio handiagoan lagunduko duen nahasketa bati mesede egingo zaio, eta arreta berezia emango zaio gazteen emantzipazioari eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzeari, gero eta zahartuago dagoen gizarte batean, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetuz, eta elkarlaneko erkidegoak bultzatuz, eta hori guztia eragile eta erakunde publiko eta pribatuen arteko nahitaezko elkarlanarekin.

Hala, 2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planak honako ardatz estrategiko hauek ezartzen ditu:

1. ardatza. Alokairuko etxebizitzaren parkea bultzatzea
2. ardatza. Etxebizitza babestuen parkearen kudeaketa eraginkorrean aurrerapausoak ematea
3. ardatza. Esleipen prozedurak eta etxebizitza babestua lortzeko baldintzak berrikusi eta aldatzea
4. ardatza. Eraikinen mantentzea eta birgaitzea sustatzea eta egungo parkearen irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzea
5. ardatza. Etxebizitzaren berrikuntzan aurrera egitea, eskariaren beharrei egokitzen zaizkien eredu berriak bilatuz eta ezarriz
6. ardatza. Sektore-politika desberdinak hobeto kudeatzea eta integratzea erraztuko duten lankidetzak sortzea

Bestalde, Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2017-2020 epealdiko Esparru Programak, zeinaren 6. ardatzean sartzen baitira Renove Birgaitze Programak, etxebizitzako RENOVE jarduketak-ildoari buruz zera planteatzen du: etxebizitzaren sektorea da esparru guztien artean birgaitze-beharrizanak handienak daukatenetako bat, eta birgaitze horren xedeak, funtsean, etxebizitzaren kontserbazioa, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzea izan behar du. Aldi berean, etxebizitzaren sektorea lagungarria da auzoen eta udalerrien hiri-berroneratzerako.

Hala, RENOVE Etxebizitzaren esparruaren barruan dauden programa nagusien xedea, alde batetik, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorrari laguntza ematea izango litzateke, bizigarritasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, eta energia-kontsumoa murrizteko. Eta beste xede bat, horrez gain, hiri-ingurunearen eta eremu publikoen irisgarritasuna hobetzea helburu duten berroneratze jarduketei eta ondarea birgaitzeko jarduketei laguntzea izango litzateke.

Egoera horretan, Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2017-2020 epealdiko Esparru Programak, RENOVE Etxebizitza lerroaren barruan, honako jarduketak-neurri hauek aurreikusten ditu:

- ✓ Eraikinen eta etxebizitzaren birgaikuntza-jarduketari pizgarria ematea, kontserbazioari eta irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzeari laguntzeko programa integratu baten bitartez; programa horrek birgaikuntzako obrak sustatu eta bideratuko ditu.
- ✓ Finantza-tresna berriak garatzea, partikularrek eta jabeen erkidegoek egindako energia-eraginkortasuneko jarduketetan laguntzeko, FEDER 2014-2020 programaren barruan daudela aprobetxatuz.

- ✓ Herritarrak birgaikuntzaren abantailei eta aukerei buruz sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak egitea.

Konpromiso horiek guztiak kontuan hartuta, sailaren diru-laguntza arloko politikak ardatz horren barruan hartu behar dituen helburu estrategiko hauek identifikatzen dira:

1. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzea
2. Alokairuko etxebizitzaren parkea bultzatzea
3. Eraikitako parkea mantendu eta birgaitu dadila sustatzea
4. Etxebizitzaren, eraikuntzaren eta arkitekturaren esparruaren berrikuntza babestea

1.- Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzea

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen arabera, eskumena duten euskal administrazio publikoek etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidea bete behar dute.

Eskubide hori betetzea bermatzeko, lehenbizi, eskubide hori onartuta duten pertsona, familia edo bizikidetzaren unitateen esku etxebizitza bat edo alokairuko bizitoki babestu bat jarri behar da, baina etxebizitzarik edo bizitokirik egon ezean, eskubide subjektibo hori subsidiarioki prestazio ekonomikoen sistema bat ezarri bete ahal da.

Esparru horretan, helburu estrategiko hori betetzea helburu duen sailaren diru-laguntza politikan eskubide subjektibo hori betetzeko prestazio ekonomikoen ordainketarako diru-laguntzak jasotzen dira.

Laguntza horiek emateari lotutako aurrekontu-kredituei eskubide subjektiboaren izaera ematen die Etxebizitzaren Legeak; horregatik, laguntza horiek kreditu handigarriak dira, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Legearen 24.1.b) artikuluaaren arabera.

2.- Alokairuko etxebizitzaren parkea bultzatzea

Alokairuaren bultzada ezinbestekoa da etxebizitza-merkatuaren arrazionalizazioaren ikuspegitik, soilik alokairuaren bitartez erantzun daitezkeen premien ikuspegitik; eta batez ere, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen planteamendu nagusiekin bat etorritik.

Horren haritik eta Etxebizitzaren Gida Planaren 1. ardatzaren arabera, sailaren diru-laguntza politikak, helburu horri dagokionez, alokairu babestuko etxebizitza berriak sustatzea eta hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestura mugi daitezela bultzatzea du xede. Helburu horren bidetik doaz zuzkidura-bizitokiak sustatzeko laguntzak eta udalen lurzoru-ondare publikoak eratzeko laguntzak ere.

3.- Eraikitako parkea mantendu eta birgaitu dadila sustatzea

Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2017-2020 epealdiko Esparru Programaren RENOVE Etxebizitza lerroan ezarritako helburuak lortzea xede izanik, sailaren diru-laguntza politikak barnean hartzen ditu eraikinen eta etxebizitzaren birgaikuntzari eta irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna sustatzeari buruzko diru-laguntza programak.

Helburu hori bat dator birgaikuntzako hirigintza-sozietateei eta birgaikuntza jarduketetan esku hartzen duten beste eragile batzuei laguntzearekin ere.

4.- Etxebizitzaren, eraikuntzaren eta arkitekturaren esparruaren berrikuntza babestea

Etxebizitza-politikaren arloko berrikuntza, eraikuntza-kalitatearen sustapena eta arkitekturaren zabalkunde eta sustapena, helburu estrategiko horren barruan, sailaren diru-laguntza lerroen bidez lortu nahi diren xedeak dira.

Hala, helburu hori betetzera bideratzen dira kudeatzeko sistemak ezartzeko, jasangarritasuna sustatzeko, berrikuntza indartzeko hiri-habitataren arloko Eraikal programa eta arkitektura arloko diru-laguntzen programak.

5.- Diru-laguntzen programen laburpena

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa

Helburu estrategikoa: **1- Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea**

Organo kudeatzailea: **Ihobe SA**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Ekonomia zirkularra frogatzeko proiektuetarako laguntzak	0 €
Ekoberrikuntzan I+G+b gauzatzeko "Ekosistemak" aukera-hobiari (ZTBP 2018-2020) lotutako proiektuen diseinu bikainerako laguntzak. Proiektu horiek Europako Finantzaketa Programetan aurkeztu behar dira	330.000 €
Ekoberrikuntzan I+G+b gauzatzeko "Ekosistemak" aukera-hobiari (ZTBP 2018-2020) lotutako proiektuetarako laguntzak	1.895.000 €
Ekodiseinuko proiektuetarako laguntzak	270.000 €
GUZTIRA	2.495.000 €

Helburu estrategikoa: **2- Ingurumen osasungarria bermatzea-Ingurumen kalitatea.**

Organo kudeatzailea: **Ingurumen Administrazioaren zuzendaritza
Uraren Euskal Agentzia**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Ingurumen aldetik hondatuta dauden zonak lehengoratzeko lankidetzahitzazarmenak	450.000 €
Enpresentzako diru-laguntzak.	4.200.000 €
Uraren zerbitzuen erakunde kudeatzaileekin lankidetzak, ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko obrak aurrera ateratzeko.	43.741.224 €
GUZTIRA	48.391.224 €

Helburu estrategikoa: **3- Ingurumen-integrazioa.**

Organo kudeatzailea: **Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Diru-laguntza, garapen jasangarrirako eta ingurumen-hezkuntzarako UNESCO Katedrarentzat.	285.000€
Unesco Etxearentzat	210.000€
Erakunde pribatuentzat, ingurumen-boluntariotzako lanak egiteko.	360.000€
Udalentzat. Eskolako 21 Agendaren lerroa.	480.000€

Ikastetxeentzat, Eskolako 21 Agenda garatzeko	2.250.000€
GUZTIRA	3.585.000€

Helburu estrategikoa: **4- Lurraldearen jasangarritasuna.**

Organo kudeatzailea: **Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza/ Ihobe SA**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Garapen jasangarria bultzatzen duten jarduerak egiten dituzten udalentsat.	5.400.000 €
Berringurumena PROGRAMA: Berrikuntza eta frogatze proiektuak toki eremuan	750.000 €
GUZTIRA	6.150.000 €

Helburu estrategikoa: **5- Gure natura-ondarea babestea.**

Organo kudeatzailea: **Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Erakunde pribatuentzako laguntzak, ondarea babesteari buruzko jakintza sortzeko	480.000
UPV/EHUREKIKO hitzarmena, arriskuan dauden kiropteroak kontserbatzeko.	60.000
Hitzarmena Ambar elkartearekin. Baleen lehorreratzeak.	75.000
Hitzarmena Aranzadirekin, natura-ondarea hobeto ezagutzeko eta kontserbatzeko	900.000
Geogarapentzat (Zumaiako Geoparkea), ingurumen-jarduketetarako	210.000
Konpentsazioa EKPZ aplikatuz Urdaibain	450.000
GUZTIRA	2.175.000 €

Ardatz estrategikoa: Sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria den lurraldea

Helburu estrategikoa: **Hirigintza eta hiri-berroneratzea**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Birgaitze integratuko eremuetan edo eremu narriatuetan birgaikuntza egiteko laguntzak	9.000.000 €
Hiri-berroneratzerako diru-laguntzak	33.000.000 €
Enpresentzako laguntzak: hiri-habitatari lotutako I+G+b ekimena (ZTBP 2018-2020)	1.575.000 €
Diru-laguntza Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarentzat, hiri-habitataren arloko ikerlanetarako (ZTBP 2018-2020)	300.000 €
Udalerrientzako laguntzak: hiri-habitatari lotutako I+G+b ekimena (ZTBP 2018-2020)	3.000.000 €
Diru-laguntza Bizi Kalitatea Arkitekturaren (CAVIAR) Taldearentzat. UPV/ EHUko Arkitektura Saila. Hiri-habitatari buruko ikerlanak (ZTBP 2018-2020)	50.000 €
Hitzarmena Deustuko Unibertsitatearekin, "Deusto Cities LAB" katedra garatzeko.	75.000 €
Udalentzako diru-laguntza, genero-ikuspegia udal hirigintzan uztartzeko	600.000 €
Sestaoko udaletxeari dirulaguntza arrapala mekanikoak ordezteko	50.000 €
GUZTIRA	47.650.000 €

Helburu estrategikoa: **Paisaiari balioa ematea**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Diru-laguntzak udalentsat jardunak garatzeko paisaiaren arloan Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera	90.000 €
EHU hitzarmena. Lurraldea, Paisaia eta Ondarea katedra	225.000 €
GUZTIRA	1.125.000 €

Helburu estrategikoa: **Lurraldeko informazio geografikoa**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Udalentzako diru-laguntzak, Udalaren informazio geografikoaren kalitatea hobetzeko- "Udalen Informazio Geografikoa"	600.000 €
GUZTIRA	600.000 €

**Ardatz estrategikoa: Etxebizitza duin baterako eskubidea
bermatuko duen gizarte-etxebizitzako politika**

Helburu estrategikoa: **Etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko eskubide subjektiboa
bermatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Etxebizitzako prestazio ekonomikoa (prestazio osagarria barne)	280.190.000 €
GUZTIRA	280.190.000 €

Helburu estrategikoa: **Alokairuko etxebizitzaren parkea bultzatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza eta Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Alokairua sustapenerako diru-laguntzak	50.000.000 €
Babes publikoko etxebizitzak salmentan (etxebizitza libre erabilia, sustapen itundua eto hitzarmen bidezko sustapena)	4.000.000 €
Ondare publikoak osatzera zuzendutako lurzorua kostu bidez erosteko diru-laguntzak	1.000.000 €
GUZTIRA	55.000.000 €

Helburu estrategikoa: **Eraikitako parkea mantendu eta birgaitu dadila sustatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
Etxebizitzak Birgaitzeko Renove programetarako diru-laguntzak: birgaikuntza, irisgarritasuna hirigunean eta eraikinetan eta energia-eraginkortasuna	99.000.000 €
GUZTIRA	99.000.000 €

Helburu estrategikoa: **Etxebizitzaren, eraikuntzaren eta arkitekturaren esparruan berrikuntza babestea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Diru-laguntza lerroa	Sailaren ekarpena
<p>Etxebizitza, eraikingintza iraunkorra eta arkitekturaren zabalkundearen arloan ikerketarako, berrikuntzarako eta berrikuntzarako diru-laguntzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arkitekturako azpiprograma: Eraikuntzaren klusterrak, Lanbide-elkargoak; EHU Arkitektura Eskola – Ikerketa eta zabalkundeak; Termika arloa eta akustika arloa Laborategia. - Eraikal programa, eraikuntzan berrikuntza sustatzeko. - Udalentzako diru-laguntzak, Tokiko Etxebizitzaren Gida Planak egiteko - Hirigintza-sozietateak - Elkartek - nZEB ekimen estrategikoa - Arkitekturako biurtekoa 	<p>10.000.000 €</p>
GUZTIRA	10.000.000 €



Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa

Helburu estrategikoa: 1. Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea

Organoa: IHOBE, SA

Aurrekontu Programa: Ingurumenaren babesa (44210)

Diru-laguntza lerroa: Euskadirentzat Ekonomia Zirkularrean identifikatutako lehentasunezko industria-proiektu eragileetarako laguntzak, "Ekosistemak" aukera-hobiari (ZTBP 2018-2020) lotutako badaude eta Europako Finantzaketa Programetan aurkeztu behar badira

Helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren denbora-jokalekuan)

Helburua: Ekonomia zirkularreko proiektu eragile bakar bati eman nahi zaio laguntza; proiektu horrek jauzi diferentziala eman behar du sektorean, balio-katearen jarduera kolaboratzailearen bidez, eta nazioarteko dimentsioa izan behar du.

Lortu nahi den eragina:

- Gaitasun berriak ekartzea eta inpaktu-potentzial handia izatea, eta horrez gain, erakunde ugari mesede egitea.
- Ingurumen- edo lehiakortasun-erronka bat konpontzea, kolaborazio-ikuspegi zabal batetik.
- Enpresen eta ikerketa-zentron arteko lankidetzak eraginkorra, baita emaitza orokorren zabalkundea ere.

Adierazleak:

- Aurkeztutako proiektuen kopurua
- Finantzatutako proiektuen kopurua

Eraginpean dauden eskumen arloak/ lotutako arloko planak:

Lotutako arloko planak:

- 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana
- 2020ko Ingurumen Esparru Programako "Fabrikazio berdea" proiektu giltzarria.
- Eskualdeko Espezializazio Adimentsuko RIS3 Estrategia eta EAEko ZTBP

Diru-laguntzen helburu den edo diren sektorea edo sektoreak:

Enpresa pribatuak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kideak.

Sailaren aurrekontu-konpromisoak

	2018	2019/2020
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
	0	0

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: 54140 programa. Berrikuntza Funtsa. Lehendakaritzaren aurrekontua

Emateko prozedura: Lehiadun konkurrentzia

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa

Helburu estrategikoa: 1. Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea

Organoa: IHOBE SA

Aurrekontu Programa: Ingurumenaren babesa (44210)

Diru-laguntza lerroa: Ekoberrikuntzan I+ G+ b gauzatzeko "Ekosistemak" aukera-hobiari (ZTBP 2018-2020) lotutako proiektuen diseinu bikainerako laguntzak. Proiektu horiek Europako Finantzaketa Programetan aurkeztu behar dira

Helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren denbora-jokalekuan)

Helburuak:

- I+ G+ b ri laguntzeko Europako Programetan aurkeztu diren Euskadiko kandidateuren arrakasta eta eragingarritasuna sendotzea
- Proiektu horiek ZTBP 2020ren eta 2020ko Ingurumen Esparru Programaren helburuetan egiten duten ekarpena handitzea.

Adierazleak:

- I+ G+ b Programetan aurkeztutako proiektuen kopurua
- I+ G+ b Programa bakoitzeko finantzatzutako proiektuen kopurua
- Euskal Administrazioarentzako kostua/eraginkortasuna erlazioa (€ EJ/€ EU)
- Negozio-ildo berriaren edo tresnaren aurreikuspena (kop.)

Eraginpean dauden eskumen arloak/ lotutako arloko planak:

Lotutako arloko planak:

- 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana
- 2020ko Ingurumen Esparru Programako "Fabrikazio berdea" proiektu giltzarria.
- Klima aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia
- EAeko Biodibertsitate Estrategia 2030
- Eskualdeko Espezializazio Adimentsuko RIS3 Estrategia eta EAeko ZTBP

Diru-laguntzen helburu den edo diren sektorea edo sektoreak:

Enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kideak.

Sailaren aurrekontu-konpromisoak

	2018	2019/2020
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
	130.000	200.000

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: 54140 programa. Berrikuntza Funtza. Lehendakaritzaren aurrekontua

Emateko prozedura: Lehiadun konkurrentzia

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa
Helburu estrategikoa: 1. Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea
Organoa: IHOBE SA
Aurrekontu Programa: Ingurumenaren babesa (44210)
Diru-laguntza lerroa: Ekoberrikuntzan I+ G+ b gauzatzeko "Ekosistemak" aukera-hobiari (ZTBP 2018-2020) lotutako proiektuetarako laguntzak

Helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren denbora-jokalekuan)		
Helburuak:		
<ul style="list-style-type: none"> EAE bultzatzea ekonomia berritzaile, karbono gutxiko eta zirkular batera. Ekoberrikuntza enpresa-lehiakortasunaren funtsezko faktore gisa integratzea. Eskuratutako jakintza indartzea, lurralde-plangintzari eta industria-eskualde baten berronertzeari dagokienez. Enpresen eta ikerketa zentroen arteko benetako lankidetzak 		
Adierazleak:		
<ul style="list-style-type: none"> Parte hartzen duten ETE-en %a Administrazioak transferitu beharreko ZTko txostenen/Giden/metodoen kopurua Lor daitekeen ingurumen-hobekuntza (saihestu diren CO2 emisioak) Proiektuari esker egon litezkeen I+ G garapenak Proiektuari esker egon litekeen jarduera ekonomikoaren aurreikuspena 		
Eraginpean dauden eskumen arloak/ lotutako arloko planak:		
<ul style="list-style-type: none"> 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020ko Ingurumen Esparru Programako "Fabrikazio berdea" proiektu giltzarria. Eskualdeko Espezializazio Adimentsuko RIS3 Estrategia eta EAEko ZTBP 		
Diru-laguntzen helburu den edo diren sektorea edo sektoreak:		
Enpresa pribatuak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kideak.		
Sailaren aurrekontu-konpromisoak		
	2018	2019/2020
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
1. lerroa: Ekoberrikuntza	295.000	1.000.000
2. lerroa: Ekonomia zirkularren arloko proiektu eragilea	200.000	400.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: 54140 programa. Berrikuntza Funtsa. Lehendakaritzaren aurrekontua		
Emateko prozedura: Lehiadun konkurrentzia		

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa		
Helburu estrategikoa: 1. Baliabideetan eraginkorra den karbono-kontsumo baxuko ekonomia bultzatzea		
Organoa: IHOBE SA		
Aurrekontu Programa: Ingurumenaren babesa (44210)		
Diru-laguntza lerroa: Ekodiseinuko proiektuetarako laguntzak		
Helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren denbora-jokalekuan)		
<p>Helburuak: Produktu eta zerbitzuen ingurumen-berrikuntza sustatzea, bizi-ziklo osoan ingurumen-eragin txikiagoa izango duten, gehiago iraungo duten, errazago konponduko, eguneratuko edo berregingo diren produktuak eta zerbitzuak diseina daitezten sustatzea.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzen duten ETE-en % a • Lor daitekeen ingurumen-hobekuntza (saihestu diren CO₂ emisioak) • Proiektuari esker egon litezkeen I+G garapenak • Proiektuari esker egon litekeen jarduera ekonomikoaren aurreikuspena 		
Eraginpean dauden eskumen arloak/ lotutako arloko planak:		
<ul style="list-style-type: none"> • 2020ko Ingurumen Esparruko Programaren jarduketa-ildoak: “Materialen kontsumoa optimizatzea, eta efizientzia eta lehiakortasun handiko produktu eta prozesuen bitartez emaitza lehiakorragoak lortzea” • 2020ko Ingurumen Esparru Programako “Fabrikazio berdea” proiektu giltzarria • 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana • Eskualdeko Espezializazio Adimentsuko RIS3 Estrategia eta EAeko ZTBP 		
Diru-laguntzen helburu den edo diren sektorea edo sektoreak:		
Erauzketetako, eraldaketarako, produkzioko eta zerbitzu teknikoetako industri erakundeak: <ul style="list-style-type: none"> • Garraioen sektorea (automobilgintza, tren-industria, aeronautika-industria, ontzigintza) • Sektore energetikoa eta energia berriztagarriena • Ekipo osagarrien, makineriaren eta makina-erremintaren sektorea • Sektore elektrikoa - elektronikoa • Ingurumen-teknologiak fabrikatzen dituen sektorea • Ontzien – industria-enbalajeen fabrikatzaileak 		
Sailaren aurrekontu-konpromisoak		
	2018	2019/2020
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
	30.000	240.000

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: EZ

Emateko prozedura: Lehiadun konkurrentzia

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa
Helburu estrategikoa: 2 Ingurumen osasungarria bermatzea–Ingurumen kalitatea
Organoa: Ingurumen Sailburuordetza
Aurrekontu Programa: Ingurumenaren babesa (44210)
Diru-laguntza linea: Ingurumen aldetik hondatuta dauden zonak lehengoratzeko lankidetzak-hitzarmenak

Helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren denbora-jokalekuan)		
<u>Helburuak:</u> Toki erakundeek parte har dezatela lortzea ekainaren 25eko 4/2015 Legean, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoan aurreikusitako lurzoru kutsatuen arloko azterlan eta tresnak prestatzeko. Hondatutako zonetan ingurumena lehengoratzeko lortu nahi da azken batean.		
<u>Adierazleak:</u>		
<ul style="list-style-type: none"> • ikertutako azalera • Lehengoratzeko azalera 		
Eraginpean dauden eskumen arloak/ lotutako arloko planak:		
<u>Lotutako arloko planak:</u> IV. Ingurumen Esparru Programa Kutsatutako lurzoruen plana		
Diru-laguntzen helburu den edo diren sektorea edo sektoreak:		
Foru-aldundiak eta EAEko tokiko erakundeak		
Sailaren aurrekontu-konpromisoak		
	2018	2019/2020
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
7. kapitulua	150.000	300.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: EZ		
Emateko prozedura: Hitzarmenak		

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsu eta produktiboa
Helburu estrategikoa: 2 Ingurumen osasungarria bermatzea–Ingurumen kalitatea
Organoa: Ingurumen Sailburuordetza
Aurrekontu Programa: Ingurumenaren babesa (44210)
Diru-laguntza linea: Enpresentzako diru-laguntzak

Helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren denbora-jokalekuan)		
<u>Helburua:</u> Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono-isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea		
<u>Lortu nahi den eragina:</u> Euskal Autonomia Erkidegoan enpresek ingurumena babesteko inbertsioak egitea.		
<u>Adierazleak:</u>		
